BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

1037

EBAZPENA, 2014ko otsailaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Veterinarios Sin Fronteras/Mugarik gabeko Albaitariak –Vetermon– erakundeak 2007ko GLSFren kontura proiektuei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento de la soberanía alimentaria en el ámbito rural de la República Democrática del Congo» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzen duena.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2007ko abenduaren 11ko Aginduaren bidez, Veterinarios Sin Fronteras/Mugarik gabeko Albaitariak –Vetermon– erakundeari 273.986 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Fortalecimiento de la soberanía alimentaria en el ámbito rural de la República Democrática del Congo» proiektua gauzatzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2014ko otsailaren 6an bidalitako komunikazioan, ordainketa zati bati uko-egiteko eskaera aurkeztu zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituen otsailaren 27ko 34/2007 Dekretuaren 28. artikuluko 1. paragrafoak ezarritakoaren arabera, erakunde eskatzaileak proiektuaren aurreikusitako garapenean funtsezko eragina izan dezakeen edozein gorabehera jakinarazi beharko dio aldez aurretik Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari, eta proiektuan egin nahi diren aldaketak gauzatu aurretik baimen-eskaera bidali beharko dio, aurrekontuan dituzten ondorioak zehaztuta.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Veterinarios Sin Fronteras/Mugarik gabeko Albaitariak –Vetermon– erakundeari 2007 GLSFren kontura proiektuetarako laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento de la soberanía alimentaria en el ámbito rural de la República Democrática del Congo» proiektuari uko-egiteko eskaera onartzea.

Horren ondorioz, erakunde horrek ordainketari dagokion kopurua (justifikatuta ez dagoena) itzuli beharko du, hau da, 8139,59 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hila-

bete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 19a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.